



GOBERNANTZA, ADMINISTRAZIO
DIGITAL ETA AUTOGOBERNU
SAILA
Enplegu Publikoko Sailburuordetza

DEPARTAMENTO DE
GOBERNANZA, ADMINISTRACIÓN
DIGITAL Y AUTOGOBIERNO
Viceconsejería de Empleo Público

2025/045 EBAZPENA, ENPLEGU PUBLIKOKO SAILBURUORDEARENA, INDARREAN DAUDEN LAN-POLTSEN ZERRENDAK ARGITARATZEA XEDATZEN DUENA, ENPLEGUA FINKATZEKO SALBUESPENEZKO HAUTAKETA-PROZESUETAKO ADMINISTRAZIO OROKORREKO LAN-POLTSAK HANDITZEKO IRIZPIDEAK EZARTZEN DITUEN FUNTZIO PUBLIKOKO SAILBURUORDEAREN 57/2024 EBAZPENEAN EZARRITAKO IRIZPIDEEN ARABERA.

RESOLUCIÓN N° 045/2025, DE LA VICECONSEJERA DE EMPLEO PÚBLICO, POR LA QUE SE DISPONE LA PUBLICACIÓN DE LOS LISTADOS DE BOLSAS DE TRABAJO VIGENTES, SEGÚN LOS CRITERIOS ESTABLECIDOS EN LA RESOLUCIÓN 57/2024, DEL VICECONSEJERO DE FUNCIÓN PÚBLICA, POR LA QUE SE ESTABLECEN LOS CRITERIOS DE LA AMPLIACIÓN DE LAS BOLSAS DE TRABAJO DE ADMINISTRACIÓN GENERAL DE LOS PROCESOS SELECTIVOS EXCEPCIONALES DE CONSOLIDACIÓN DE EMPLEO.

AURREKARIAK

Gobernantza Publiko eta Autogobernuko sailburuaren 2021eko urtarrilaren 7ko Aginduak Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazio Orokorrean eta haren erakunde autonomoetan aldi baterako zerbitzuak emateko langileen hautaketa arautzen du.

Aginduaren 4.1 artikulua, lan-poltsak zabaltzeari buruzkoak, honako hau xedatzen du: *"Lan-poltsak ez baditu betetzen eskaintza jakin bateko baldintzak, lan-poltsak kudeatzeko organo eskudunak honako prozedura hauetakoren bat erabili ahal izango du hautagaia aukeratzeko: a) Kudeaketa berezia egin, Administrazio honetako lan-poltsetan dauden pertsonen artean. b) Administrazio Orokorreko beste sektore batzuetako lan-poltsak jo. c) Atarian lan-eskaintzak jarri. d) Deialdi zehatzak egiteko eskatu. e) Beste administrazio publiko batzuetako lan-poltsak erabili. f) Lanbidera jo. g) Enplegu publikoaren eskaintzak prestatu.*

Baina lan-poltsak zabaltzeko edozein aukera baliatzen dela ere, eraginkortasun eta efizientzia administratiboaren printzipioak bete beharko dira, eta honako hauek kontuan hartuko dira: lanpostua betetzeko premia, lanpostuaren

ANTECEDENTES DE HECHO

La Orden de 7 de enero de 2021, de la Consejera de Gobernanza Pública y Autogobierno, regula la selección del personal para la prestación de servicios de carácter temporal en la Administración General de la Comunidad Autónoma del País Vasco y sus Organismos Autónomos.

El artículo 4.1 de la Orden, referido a la ampliación de bolsas de trabajo, determina que: *"en el supuesto de inexistencia de aspirantes en las bolsas de trabajo existentes que cumplan los requisitos de una determinada o determinadas ofertas, el órgano competente en la gestión de bolsas podrá seleccionar a la persona candidata a través de los siguientes procedimientos: a) Realizar gestión excepcional entre el personal que integra las bolsas de trabajo de esta Administración; b) Acudir a bolsas de otros sectores de la Administración General; c) Realizar ofertas de trabajo en el Portal; d) Solicitar la realización de convocatorias específicas; e) Acudir a bolsas de trabajo de otras Administraciones Públicas; f) Acudir a Lanbide; g) Convocar ofertas de empleo público.*

La elección de la vía de ampliación estará supeditada a los principios de eficacia, efectividad y eficiencia administrativa: a la urgencia en la cobertura de la prestación de servicios, al



profil zehatza eta deialdi zehatza edo enplegu publikoaren eskaintza egiteko gaitasun materialak.”

Gaur egun, Ebazpen honen bidez zabaltzen den aldi baterako lan-poltsek ez dute nahikoa kide administrazio honetako langileen eskaera guztiei erantzuteko, eta horren ondorioz, askotan jo behar izan da ezohiko kudeaketara. Izan ere, enplegu publikoaren eskaintzen deialdiak araudian jasotako zabaltze-bideetako bat dira.

Gobernantza Publiko eta Autogobernuko Sailburuaren 2022ko maiatzaren 18ko Aginduaren bidez onartu ziren Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazio Orokorreko eta haren Erakunde Autonomoetako kidego eta eskaletan enplegua finkatzeko prozesu bereziak eta enplegua finkatzeko salbuespenezko prozesuak arautzeko oinarri orokorrak. Era berean, Gobernantza Publiko eta Autogobernuko sailburuaren aginduen bidez, hainbat kidego eta eskalatako deialdiak argitaratu dira, aurreikusitako kontsolidaziorako hautaketa-prozesuen esparruan abenduaren 28ko 20/2021 Legeak, enplegu publikoan behin-behinekotasuna murrizteko premiazko neurriei buruzkoak, eta, azaroaren 11ko 7/2021 Legeak, Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazioaren kidego eta eskalei buruzkoak.

Funtzio Publikoko sailburuordearen 2024ko ekainaren 19ko 57/2024 Ebazpenaren bidez, enplegua finkatzeko salbuespenezko hautaketa-prozesuetako kidego eta eskalen administrazio orokorreko lan-poltzak zabaltzeko irizpideak ezarri ziren.

Horri dagokionez, argitu behar da lan-poltza guztietan 12 hilabeteko penalizazioagatik lanerako prest ez daudenek egoera horri eutsiko diotela penalizazioak irauten duen bitartean integratuta dauden lan-poltza guztietan, eta sartuko diren lan-poltsetan.

particular perfil de la misma y a las posibilidades materiales de realizar una convocatoria específica u oferta de empleo público.”

En la actualidad, la bolsa de empleo temporal, que se procede a ampliar a través de la presente Resolución, carece de personas integrantes suficientes para satisfacer todas las demandas de personal de esta administración, circunstancia que ha obligado a recurrir en numerosas ocasiones a la gestión excepcional. Las convocatorias de ofertas de empleo público son una de las vías de ampliación recogidas en la normativa.

Mediante Orden de 18 de mayo de 2022, de la Consejera de Gobernanza Pública y Autogobierno se aprueban las bases generales que han de regir los procesos especiales de consolidación de empleo y los procesos excepcionales de consolidación de empleo en los cuerpos y escalas de la Administración General de la Comunidad Autónoma de Euskadi y sus Organismos Autónomos. Asimismo, mediante Órdenes de la Consejera de Gobernanza Pública y Autogobierno, se han publicado las convocatorias de varios Cuerpos y Escalas, en el marco de los procesos selectivos de consolidación previstos por la Ley 20/2021, de 28 de diciembre, de medidas urgentes para la reducción de la temporalidad en el empleo público y la Ley 7/2021, de 11 de noviembre, de los Cuerpos y las Escalas de la Administración de la Comunidad Autónoma de Euskadi.

Mediante Resolución de 57/2024, de 19 de junio de 2024, del Viceconsejero de Función Pública, se establecieron los criterios para la ampliación de las bolsas de trabajo de Administración General de los Cuerpos y Escalas de los procesos selectivos excepcionales de consolidación de empleo.

A este respecto, conviene aclarar que, las personas que se encuentren en situación de no disponible, por penalización de 12 meses en todas las bolsas, mantendrán esta situación en todas las bolsas en que estén integradas y en las que se integren mientras dure la misma.

Horregatik guztiatik, Ebazpen honen bidez zabaldu egiten dira ondorengo lan poltsa hauek:

- Kidego Teknikoan, Laborategiko Eskala.
- Goi-mailako Kidego Fakultatiboan, Kiroletako Eskala.
- Kidego Teknikoan, Arreta Soziolaboraleko Eskala.

Zabaltze hauek eskalara sartzeko enplegua finkatzeko salbuesenezko prozesuetako azken kalifikazioen behin betiko zerrendako hizkuntza- eskakizunik gabeko zerrendan oinarrituta egingo dira, bai eta 2024ko ekainaren 19ko Ebazpenean ezarritako irizpideen arabera.

Horregatik guztiatik, honako hau

EBAZTEN DUT

LEHENENGOA.- Jarraian aipatzen diren kidego eta eskaletako salbuesenezko hautaketa prozesuen ondorioz sortutako Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazio Orokorraren eta bere Erakunde Autonomoen lan-poltsak argitaratzea:

- Kidego Teknikoa, Laborategiko Eskala.
- Goi-mailako Kidego Fakultatiboa, Kiroletako Eskala.
- Kidego Teknikoa, Arreta Soziolaboraleko Eskala.

BIGARRENA.- Lan-poltsaren zerrendak Lan-Poltsen Atarian argitaratuko dira, helbide honetan:

www.euskadi.eus/lanpoltsak

HIRUGARRENA.- Zerrendan Hizkuntza Eskakizuna egiaztatze zutabearen edo lan-poltsan sartzeko eskatzen den titulazio-zutabearen izartxoak (*) duten pertsonen baldintza horiek betetzen dituztela egiaztatu beharko dute, horretarako balio duen jatorrizko dokumentua aurkeztuta.

Por todo ello, mediante la presente Resolución se amplían las siguientes bolsas de trabajo:

- del Cuerpo Técnico, Escala de Laboratorio.
- del Cuerpo Superior Facultativo, Escala de Deportes.
- del Cuerpo Técnico, Escala de Atención Sociolaboral.

Estas ampliaciones se realizan en base a listado sin perfil lingüístico de la relación definitiva de calificaciones finales de los procesos excepcionales de consolidación de empleo de acceso a la escala, y según los criterios establecidos en la citada Resolución de 19 de junio de 2024.

Por todo lo expuesto,

RESUELVO

PRIMERO. - Publicar las bolsas de trabajo de la Administración General de la Comunidad Autónoma de Euskadi y de sus Organismos Autónomos, resultantes de los procesos selectivos excepcionales de los siguientes Cuerpos y Escalas:

- Cuerpo Técnico, Escala de Laboratorio.
- Cuerpo Superior Facultativo, Escala de Deportes.
- Cuerpo Técnico, Escala de Atención Sociolaboral.

SEGUNDO. - Los listados de la bolsa de trabajo se publicarán en el Portal de Bolsas de Trabajo, accesible a través de la siguiente dirección:

www.euskadi.eus/bolsastrabajo

TERCERO. - Las personas que en el listado por orden o en el listado alfabético aparezcan con un asterisco (*) en la columna de acreditación del Perfil Lingüístico o en la columna de titulación requerida para el acceso a la bolsa, deberán acreditar el cumplimiento de dichos requisitos mediante la presentación de documento original válido para ello.

Horretarako, ebazpen honen bidez, zerrendan adierazitako izartxoarekin agertzen diren pertsonen eskatzen zaie akatsa zuzentzeko, eta jatorrizko dokumentazioa modu presentzian aurkezteko Eusko Jaurlaritzaren egoitza nagusian (Donostia kalea, 1, 01010 Vitoria-Gasteiz, Araba), 2025eko maiatzaren 9a baino lehen. Horretarako, Administrazioak posta elektronikoz edo SMS bidez hitzordua emango die.

Adierazitako errekerimenduari erantzuten ez diotenak eta lan-poltsan sartzeko beharrezko baldintzak betetzen dituztela egiaztatzen ez dutenak lan-poltsatik kanpo geratuko dira, Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazio Orokorrean eta haren Erakunde Autonomoetan aldi baterako zerbitzuak emateko langileen hautaketa arautzen duen Gobernantza Publiko eta Autogobernuko sailburuaren 2021eko urtarrilaren 7ko Aginduaren 14.1 artikuluko f) eta j) idatz-zatietan xedatutakoaren arabera.

LAUGARRENA.- Lan-poltsak argitaratu eta hurrengo egunetik aurrera izango ditu ondorioak.

Ebazpen honen aurka, gora jotzeko errekurtsioa aurkeztu ahal izango zaio Gobernantza, Administrazio Digital eta Autogobernuko sailburuari, hilabeteko epean, Lan-poltsen Atarian argitaratu eta hurrengo egunetik hasita.

Vitoria-Gasteizen, sinadura elektronikoaren egunean.

A este fin, a través de la presente, se les requiere a las personas que aparecen en los distintos listados con el asterisco indicado para que subsanen la falta aportando la documentación original de manera presencial en la sede central del Gobierno Vasco, sita en la calle Donostia-San Sebastián, 1, 01010 Vitoria-Gasteiz, Álava, antes del día 9 de mayo de 2025. Para ello, la Administración les citará mediante correo electrónico o SMS.

Quienes no atiendan el requerimiento indicado y no acrediten el cumplimiento de los requisitos necesarios para formar parte de la bolsa serán excluidos de la misma, conforme a lo dispuesto en el artículo 14.1, apartados f) y j), de la Orden de 7 de enero de 2021, de la Consejera de Gobernanza Pública y Autogobierno, por la que se regula la selección del personal para la prestación de servicios de carácter temporal en la Administración General de la Comunidad Autónoma del País Vasco y sus Organismos Autónomos.

CUARTO. - La bolsa de trabajo surtirá efectos desde el día siguiente de su publicación.

Contra la presente Resolución podrá interponerse recurso de alzada ante la Consejera de Gobernanza, Administración Digital y Autogobierno, en el plazo de un mes desde el día siguiente de su publicación en el Portal de Bolsas de Trabajo.

En Vitoria-Gasteiz, a la fecha de la firma electrónica.

Maite Barruetabeña Zenekorta

ENPLEGU PUBLIKOKO SAILBURUORDEA / VICECONSEJERA DE EMPLEO PÚBLICO